

**IRAKASKUNTZA-GIDA**

2024/25

**Ikastegia**

252 - Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea. Gipuzkoako Atala

**Zikl.**

Zehaztugabea

**Plana**

GENFER20 - Erizaintzako Gradua

**Ikastaroa**

4. maila

**IRAKASGAIA**

26466 - Prácticum IV

**ECTS kredituak:** 30**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Kanpoko praktika akademikoak hezkuntza jardun bat da, ikasleek egina eta unibertsitateak gainbegiratu, hezkuntza akademikoan jaso eta berenganatutako jakintzak aplikatzeko eta osatzeko aukera eskaintzen diena ikasleei eta erizain profesiorako prestaketan baliatuko dituzten gaitasunak bereganatzen lagunduko diena, hartara lan merkatura arinago iritsi eta zein bere ekimenerako gaitasuna sustatuz.

Onartua izateko baldintzak:

Irakasgai hau egiteko nahitaezkoa da hirugarren mailako Practicum II eta Practicum III irakasgaiak gaindituta izatea eta beste irakasgai hauek ere izan beharko dira gaindituta:

- Erizaintzaren Oinarri Teorikoak
- Erizaintzaren Oinarri Metodologikoak
- Patologia. Oinarrizko Zaintza
- Erizaintza Klinikoa I, II, III eta IV
- Komunitate Erizaintza
- farmakologia
- Bizi Zikloaren Erizaintza I eta II
- Harremanak eta Komunikazioa Zainketetan

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**

Profesioan jardun aurreko praktiketan txandakako formazio kliniko independentea eskuratzen da osasun gune, ospitale eta bestelako sorospen guneetan, eta gaitasunen azken ebaluazioa izaten dute; praktika horien bidez, lanbidearen balioak, sorospenerako komunikazio gaitasunak, arrazonamendu klinikoak, gestio klinikoak eta epai kritikoa eskuratzeko aukera dauka ikasleak, praktikak erizaintzako ezagutza, trebetasunak eta jarrerak bertatik bertara ezagutzeko bidea emango baitio; guztia tituluko helburu orokorrekin, gaitasunekin eta gaiekin bat etorrita. Honetaz gain, ikasleek urriaren 23ko 954/2015 Errege Dekretuak aurreikusten dituen giza erabilerako botika eta produktu sanitarioak agindu, erabili eta dispensatzeko baimena eman ahal izateko beharrezko gaitasunak dituela egiaztatu beharko du.

**EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK**

Kanpoko praktika hauetan hainbat eragilek hartzen dute parte. Lehenengo eta behin, ikasleak, ikaslea bera baita ezagutza eskuratzearen erantzule, eta parte hartze aktiboa izan behar baitu gaitasunen garapenean eta etengabeko prestakuntzaren prozesuan.

UPV/EHUn ikasleen kanpoko praktikei buruz indarrean dagoen araudiari jarraituz, hauek dira praktika horietako beste eragile batzuk:

Instruktorea (zentroko tutorea)

Praktiketako guneko erizain bat da, unibertsitatearekin bat etorrita prestakuntza jarduerak antolatzeaz ardurako dena.

Unibertsitateko tutorea (irakasle-tutorea)

Kanpoko praktika akademikoak egiten ari den ikaslearen jarraipena egiten du eta ari laguntza ematen dio.

Irakasgai honetako metodologiak oinarri ditu metodo zientifikoa arazoak konpontzeko eta hausnarketa, horien bidez ikasleak, apurka-apurka, esku hartzeko eskemak eta estrategiak gara ditzan eta etorkizunean, erizaintzan jarduten duenean, bere jardunak gogoeta izan dezan oinarri.

Praktiketan ikasleek banan banako arreta izaten dute. Begiraleak eta tutoreak, ikaslearekin batera, helburuak zehazten dituzten kontuan hartuta zehaztutako gaitasunak.

Irakasgai hau erabat presentziala da bat etorrita 1837/2008 Errege Dekretuarekin, horren arabera, Erizaintzako Graduak ikasleek 2.300 ordu bete behar baitituzte praktika asistentzialetan.

Practicuma egin bitartean, gutxien dela hiru tutoretza egiten dira:

1. tutoretza: praktikak hasten direnean. Ikasketa prozesua zehazten da.

2. tutoretza: practicumaren erdi aldera egiten da. Ikasleak izandako bilakaera aztertzen da, bai eta lortutako gaitasunak ere, eta horren arabera berbiderratu egiten dira praktikak.

3. tutoretza: Praktikak amaitzerakoan, prozesua ebaluatzen da, hau da: ikasleak emaitzak eta hasieran zehaztutako gaitasunak zein heinean eskuratu dituen.

**METODOLOGIA**

Irakaskuntza-metodologia.-

- Irakasle-tutoreak eta erizain begiraleak ikaslea orientatzen dute ikasturtean zehar. Horrez gainera, praktiketako



ikastetxean, erizaintzako taldeak bere gain hartzen du erizaintzako funtzioak in situ irakasteko eginkizuna.  
- Ikasleak bere gain hartu beharko du bere ikaskuntzaren ardura, eta aurrez aipatutako Practicumaren tutoretza-prozesuan ezarritako autoebaluazioak egin beharko ditu.

#### IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak									
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a									

**Legenda:** M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.  
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak  
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

#### EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

#### KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 20
- Praktika zikloan zehar ikasketa emaitzen garapena % 80

#### OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ikasleen ebaluazioa.-

Ebaluazioa ikastegiko Praktika Batzordeak ezarritako ebaluazio-tresnei eta tutoretza-prozesuari jarraituz egingo da. Ebaluazio- eta kalifikazio-sistema honako hau izango da:

- 1.Nahitaezko ikaskuntza-emaitza orokorrak: practicum kalifikatzeko, ezinbestekoa da praktiken amaieran emaitza guztiak frogatzea. Gehienez ere, puntu bat lortu ahal izango da.
- 2.Gainerako ikaskuntza-emaitza orokorreatatik 3 puntu lortu ahal izango dira.
- 3.Ibilbidearen arabera arloko ikaskuntza espezifikoen emaitzengatik 4 puntu eskuratu ahal izango dira gehienez.
- 4.Gogoeta kritikorako praktikengatik, gehienez ere 2 puntu eskuratu ahal izango dira.

Practicuma gainditzeko ezinbestekoa izango da ziklo bakoitza gainditzea. Practicumaren kalifikazioa bi zikloen media aritmetikoa eginez lortuko da.

Azken xedapena.-

Practicumetan sortzen diren gertakariei buruzko erabakiak Praktika Batzordeak hartuko ditu.

#### EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ikasturtean ohiko deialdi bakarra egongo da.

UPV/EHUko Gradu Ikasketa Ofizialetako Ikasleen Ebaluaziorako Arautegiarekin bat etorrira, ikasturte bakoitzean ikasleak deialdi bakarra izango du irakasgai hau gainditzeko.

Praktiketako Batzordeak ahalmena dauka aparteko kasuetan eta behar bezala justifikatuta practicumeko aldia zabaltzeko, betiere, ikasturteko egutegiari jarraituz. Aparteko egoera horrek ez die eragingo jadanik eginda izanda gainditzeke dauden praktikei.

#### NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Ebaluazio eta autoebaluazio erreflexiboko tresnak.



## BIBLIOGRAFÍA

### Oinarrizko bibliografia

Praktiketako araudia  
Istripuetako protokoloa  
Tutoretza prozesua

### Gehiago sakontzeko bibliografia

### Aldizkariak

### Interneteko helbide interesgarriak

Lotura interesgarriak.-  
<https://egela.ehu.es/> Ikastaroa: Practicum IV  
<http://gestion.ehu.es/gaur>  
<https://www.ehu.eus/eu/web/medikuntza-erizaintza-fakultatea/practicum-erizaintzako-gradua-donostia>

## OHARRAK

### DERRIGORREZKOA DA PRAKTIKUMAREN ARAUTEGIA BETETZEA IRAKASGAIA GAINDITZEKO

Garrantzitsua da arautegi honen 16.puntua kontuan hartzeko irakasgai honetara aurkeztu aurretik.

16.puntua:UPV/EHUko Kanpo Praktiken Arautegiaren 9.2.e) artikulua jarraituz, praktikan segurtasuna bermatu behar da. Horretarako, Praktiken Dekanordeak, practicumak hasi aurretik, segurtasun hori bermatzen dela egiaztatzen duen informazioa jasoko du practicum bakoitzaren Irakaskuntza Gidan adierazten den eran. Segurtasun klinikoa bermatzen ez dela adierazten duten ebidentziak jasoko balitu, Praktiken Dekanordeak arrazoitutako txosten bat igorriko dio ikastegiko dekanotzari, eta hark erabakiko du ikasle horri praktika egitea onartzen zaion ala ez. Ikasleari praktika ukatzen bazaio, ukapenaren arrazoiak jakinaraziko zaizkio eta aktan "ez-aurkeztu" gisa agertuko da.

### ES OBLIGATORIO CUMPLIR LA NORMATIVA DEL PRACTICUM PARA SUPERAR LA ASIGNATURA

Es importante tener en cuenta el punto nº16 de esta normativa, en la que dice:

16. De acuerdo con el artículo 9.2.e) del Reglamento de Prácticas Externas de la UPV/EHU, se debe garantizar la seguridad en las prácticas. A estos efectos, el Vicedecano o Vicedecana de Prácticas recibirá, con carácter previo al inicio de los prácticum, la información que acredite dicha seguridad en los términos que se indican en la Guía Docente de cada practicum. Si recogiera evidencias de que no se garantiza la seguridad clínica, el Vicedecano de Prácticas remitirá un informe razonado al Decanato del Centro, quien decidirá si se acepta o no la práctica de este alumno o alumna. En el caso de que se deniegue la práctica al alumno o alumna, se le informará de los motivos de la denegación y figurará en el acta como de no presentación.